

DBH_Ikasgaia_PROGRAMAZIO LABURPENA

| | | | | | |
|-----------|--|-------|------|------------|-----------|
| Irakaslea | Oihane Txokarro Asiain eta Olaia Eguzkitza Diego | Maila | DBH3 | Ikasturtea | 2021-2022 |
|-----------|--|-------|------|------------|-----------|

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Gaur egungo gizartean, komunikaziorako horren erabiliak diren irudien eta irudien bitarteko muntaien artean, argazkiek, paper garrantzitsua dute. Ikasleek irudi horiek, kritikoki interpretatzen eta helburu artistiko, informatibo edo komunikatibo batekin "egiten" ikastea da gure asmoa. Ikastetxeak diseinatutako astean bi orduko hautazko ikasgaia da. Aurten, aurreko bietan bezala, Elkartasun Eskolaren proiektuaren barnean, migratzaileen egoera aztertzeke ikastetxean egiten diren jardunaldiak iragartzeko kartel bat osatuko dugu Gimpen bitartez, baita SEI elkarte kulturalean parte hartzen duten gazte migratzaileekin harremanetan jarriko gara, argazkilaritza lanak bitarteko izanik.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Laurak Kontingentzia Plana izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeke Arreta ez-Presentzialaren Plana.

Kontingentzia Plana eta Arreta ez-presentzialaren planari buruzko informazioa ikastetxeke [web orrialdean](#) eskegiko da.

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----|----|
| 1) Hizkuntza komunikazioa. | x | | | | x | | | | x | | | |
| 2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarrizko gaitasunak. | | x | x | x | | x | x | x | | x | x | x |
| 3) Gaitasun digitala. | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x | x |
| 4) Ikasten ikastea | x | x | | | x | x | | | x | x | x | |
| 5) Gaitasun sozial eta zibikoak. | | | x | | | | x | | | | x | |
| 6) Ekimena eta ekintzailtza. | | x | | | | x | x | | | x | | |
| 7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak. | x | | | | x | | | | x | | | |

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

EDUKIAK

DBH CURRICULUMA

- Argazki kamera:** argazki kamarak dituen parametro desberdinak eta hauen erabilera ezagutu.
- Argazkien analisia:** argazkilari desberdinen lana ezagutu eta konposaketa, kolorea, fokatzea, enkoadraketa bezalako kontzeptuetan erreparatu besteak beste.
- Irudi digitala:** Argazki kamera digitalaren funtzionamendua, pixela eta bereizmena, formatu motak eta

artxiboen luzapena.

4. **Gimp programa:** Argazkien ediziorako software libreko programa honen erabilpena.

5. Argazkigintzaren historia eta erabilerak

Ikastetxeko Berrikuntza Proiektuen arteko bat da **Iturrama Solidarioa**, ikasgai honetan honi lotutako proiektu edo zeregin hau burutzen da:

Lagun ikustezina

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

| 1. Ebaluazioa | | 2. Ebaluazioa | | 3. Ebaluazioa | |
|---------------|--|---------------|---|---------------|--|
| Ordua k | Unitateak | Ordua k | Unitateak | Ordua k | Unitateak |
| 1 | Arloaren programazioaren laburpena. Gelako arauak. | 1 | Aurreko ebaluaketako lanak eta azterketa berrikusi. | 1 | Aurreko ebaluaketako lanak eta azterketa berrikusi. |
| 4 | A) ARGAZKIAREN ANALISIA (I) Fokatzeta, makroa, konposizioa eta enkoadraketa. | 3 | A) ARGAZKIAREN ANALISIA (II) Obturadorea, esposizioa, flash-a, egindura, eskala, barne-erreturua bodegoia, argiztapena (fokuak, flasha, pantaila islatzailea) | 3 | A) ARGAZKIAREN ANALISIA (III) Zurien oreka, diafragma eta argazki jarraiak, itzalak, isladak, natura, talde erreturua, kolorea gai nagusi. |
| 4 | B) ARGAZKI PRAKTIKA (I): Fokatzeta, makroa, konposizioa eta enkoadraketa. | 3 | B) ARGAZKI PRAKTIKA (II) Obturadorea, esposizioa eta flash-a - Ondorengo gaietan oinarrituriko argazkiak: egindura gai nagusi, hiri paisaia, lerroa gai nagusi, eskala jokua, barne erreturua argiztapenarekin, bodegoia argiztapenarekin. | 3 | B) ARGAZKI PRAKTIKA (III) - Zurien oreka, diafragma eta argazki jarraiak. - Ondorengo gaietan oinarrituriko argazkiak: Itzalak, isladak, natura, talde erreturua, kolorea gai nagusi. |
| 2 | D) TEORIA (I) Argazki kamera. Teoria Objetiboa, diafragma, obturadorea, eremu sakonera, esposizioaren neurketa, zurien balantzea, flash-a... - Argazkiaren enkoadraketa: planoak, ikuspuntuak eta konposizioa. | 2 | D) TEORIA (II) - Irudi digitala. Argazki eta kamera digitala. Pixela eta bereizmena. Pantaila eta inprimagailuaren bereizmena. Irudia gordetzea: byte-ak. Irudi digitalaren formatu motak eta artxiboen luzapena. | 2 | D) TEORIA (III) Argazkigintzaren erabilerak: prentsa argazkigintza, argazkigintza artistikoa, moda argazkigintza, publizitarioa, dokumentala, zientifikoa... |
| 10 | E) PROGRAMA INFORMATIKOA (I) GIMP programa. GOOGLE IKASGELA | 10 | E) PROGRAMA INFORMATIKOA (II) GIMP programa. Iturrama migratzaileekin proiektuaren inguruan kartel bat osatu. | 9 | E) PROGRAMA INFORMATIKOA (III) GIMP eta Windows Movie Maker. Argazkien bilduma osatu soinu eta mugimenduarekin. |

| | | | | | |
|--|---------------------|---|---------------------|---|---------------------|
| 2 | Ebaluazio jarduerak | 2 | Ebaluazio jarduerak | 2 | Ebaluazio jarduerak |
| METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK | | | | | |
| <p>Jarduera gehienak praktikoak izanen dira. Jarduera motak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - ARGAZKI PRAKTIKA multzoan: egin beharreko ariketen gidoi batekin Ikastetxetik kalera aterako gara, argazki kamerekin, praktikak egitera. Ikasgela batetan eta argiztapen egokia erabiliz, estudioko argazkiak egin. - PROGRAMA INFORMATIKOAK multzoan: Informatika gelan zenbait programa informatikoak landu: Scribus, Gimp, Photoshop eta Windows Movie Maker. - ARGAZKIAREN ANALISIAN: gelan eta kanoiaren bidez proiektatuz, argazkiak analizatu eta, gidoi bat jarraituz, iruzkinak egin. - TEORIA multzoan: Informatika gelan, irudi eta apunteen bitartez, argazkigintzaren tekniken inguruan eta irudi digitalaren inguruan teoria azaldu. IK/KI egiturak erabiliko dira. | | | | | |
| EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA | | | | | |
| KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK | | | | | |
| <u>EBALUATZEKO PROZEDURAK, BALIABIDEAK EDO TRESNAK</u> | | | | | |
| <p>Edukien ebaluaketarako honako baliabideak erabiliko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - PROGRAMA INFORMATIKOAK multzoa: gelan egindako lan praktikoaren nota. Gimp programari buruzko azterketa bat guztiei egien zaie. - TEORIA eta ARGAZKIAREN ANALISIA multzoak: Argazki baten iruzkina eta testak eginen dira. - ARGAZKIGINTZA PRAKTIKA multzoa: egindako argazkien nota. | | | | | |
| <u>KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK</u> | | | | | |
| A) Ebaluaketako nota ezartzeko kontuan hartuko diren atalak eta balioak: | | | | | |
| <ul style="list-style-type: none"> - Argazkigintza praktika: % 40 - Testak eta iruzkinak: %20 - Programa informatikoen erabileraren ezagupen maila: %30 - Jarrera %10 <p>- Ebaluaketan zehar test edo azterketarik ez balitz, praktikak %45, programa informatikoak %45 eta jarrerak %10 puntuatuko du.</p> <p>- Ebaluaketa bakoitzaren nota osatzeko 4 atal hauek hartuko dira kontuan.</p> <p>- Ebaluaketa gainditzeko, atal bakoitzean 4 bat gutxienez izan behar da eta 4 atalen notaren batez bestekoan 5era iritsi.</p> <p>- Ebaluaketa bat suspenditzekotan, bakarrik suspendituriko atalen berreskurapena egin beharko da.</p> <p>- Salbuespen moduan, ikasleren batek argazkigintzako praktika, informatika eta jarrerako notaren batezbestekoan 6 edo 6 baino gehiago izango balu eta teorian 4 baino gutxiago, interesa eta jarrera erakutsirik geratzen dela, ebaluaketa gaindituko luke.</p> | | | | | |
| B) Lanak eta jarrera kalifikatzeko baldintzak: | | | | | |
| <ul style="list-style-type: none"> - Ezinbestekoa izango da eskatutako lan eta argazki guztiak garaiz ematea. Lan bat edo argazki multzo bat, justifikatu gabe, epetik kanpo aste bat beranduago aurkezten bada, puntu bat jaitziko zaio eta ez da onartuko aste bat baino gehiagoko atzerapenarekin aurkezten bada. Kasu honetan, lana ebaluaketa bukaerarako aurkeztuko da 5 batekin gehienez puntuatuko da.* - Lanak klasean bertan egin beharko dira eta, bukatzen ez badira, etxean osatu daitezke (beti ere, gelako denbora probestu bada). Berreskurapenak eta gaixotasunak salbuespen, ez da ebaluatuko klasean ez landutako ariketarik. - Ikaslearen jarreraren kontutan hartuko dena zera da: erakutsitako interesa, ahalegintze maila, talde lanetako partehartzea, ikaskide eta irakaslearekiko errespetua, besteen lanekiko jarrera positiboa, materiala zaintzea, euskararen erabilera... | | | | | |

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Borobiltzea: kasu guztietan borobiltze matematiko arrunta erabiliko da, hau da, lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da. Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.

Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

Ebaluazio diagnostikoa: 3. ebaluazioko nota kalkulatzeko erabiliko den

ERREKUPERAZIO SISTEMA

1) JARDUERAK BERRESKURATZEA: Jardueraren bat 5 baino gutxiagoko notarekin ebaluatzen bada, jarduera errepikatuz berreskuratzeko aukera egonen da, epe baten barruan.

2) EBALUAKETA BERRESKURATZEA: ebaluaketa bat ez gainditua badago, ebaluaketa ondoren

15 eguneko tartean irakasleak komunikatuko dizue zein lan aurkeztuko duzuen berreskuratzeko. Gehienez 5eko nota lortu ahalko da.

2) EKAINEKO AZTERKETA GLOBALEAN (Ekaineko Ohiko azterketa)

- Hiru ebaluaketen batez bestekoa 5era iritsiko ez balitz, ebaluaketaren batetan 4 baino gutxiago izanen balu edo ebaluaketetako atalaren bat berreskurapenean gainditu gabe geratu bada, ikaslea

Ekaineko Ohiko Azterketara aurkeztu beharko da.

- Ekainean gainditzeko, azterketan egindako atal bakoitzean, gutxienez 4 bat atera beharko da eta atal guztien batz bestekoan 5 batera iritsi beharko da.*

3) EZ-OHIKO AZTERKETA

- Ekaineko notan 5era iristen ez bada Ekaineko Ezohiko azterketara aurkeztu beharko da.

Horretarako, suspensitu duen ikaslea Marrazketako Mintegira jo beharko du, bere irakaslearengandik egin beharreko lanak eta Ez-Ohiko azterketarako informazioa jasotzeko.

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbaitek aldatzea, zilegi litzateke.